

# *Hiztegitik kofradiara (sarrera-hitzaldia)*

URKIA, Miriam  
Euskaltzain osoa

Alkate jauna, euskaltzainburu jauna, agintariak, euskaltzainak, lankideak, lagunak, herritarrak, senideak eta etxeokak, egun on guztioi.

## **1. Joan Mari Torrealdai**

Ez dira gauza asko bizitzan behin bakarrik egiten direnak, eta horietakoa dut gaurkoa: zuen guztien aurrean sarrera-hitzaldia egitea. Besoak zabalik hartu naute euskaltzainek eta, ezagutu ostean, are zailagoa eta ausardia handiagokoa egiten zait zuen aurrean mintzatzea. Baina iritsi da eguna, eta aurrera egitea besterik ez dut.

Euskaltzaindiaren araudiak agintzen duenez, bi dira sarrera-hitzaldian euskaltzain berriaren betebeharrak. Bata, ordezkatzeko duen euskaltzaina gogoratzea; bestea, hartu duen gaia azaltzea.

Lehenengo betebeharra dela eta, araudiak ez ezik, bihotzak ere eskatzen dit Joan Mari Torrealdairen aipua egitea. Ez dut, gainera, ordezkatzeko, 29. aulkia berarekin partekatzen baizik.

Joan Mari Torrealdai Nabea, Bizkaiko Foruko semea, 1975eko ekainaren 27an izendatu zuten euskaltzain urgazle, eta 2007ko azaroaren 30ean euskaltzain oso. Ez dut Joan Mariren ibilbidea azalduko, teologian eta informazio-zientzietan lizentziaduna dela, edo zientzia politikoetan eta soziologian doktorea, ezaguna duzuelako eta, gainera, luzeegi joko lukeelako, luzea bezain emankorra baita Joan Mariren ibilbidea. Baina gaztetxotan Arantzazura joan izanak bere bizitza markatu zuela esango nuke, *Jakin* ezin baita Arantzazu gabe eta are Torrealdai gabe ulertu. Euskal liburugintza, bibliografia eta zentsura izan ditu —eta ditu— ikerketagai nagusi. Azkue biblioteca eta artxiboko ohorezko bibliotekaria ere bada.

UZEIn hasi berri nintzela ezagutu nuen nik. Artean ez nituen 25 urte izango eta, garai hartan Ategorrietan zegoen *Jakinera* EEBS corpora osatzeko material bila joan ginen batean, hantxe topatu nuen hainbatetan baliatutako *Euskal idazleak*, *gaur* liburu mardularen egilea, *Jakin* aldizkariko zuzendaria. Hori zen nik garai hartan —gazte eta ezjakin, bistan denez— nuen bere erreferentzia nagusia, ia bakarra. Bakar-bakarrrik esango dizuet *Jakin*eko bazkide eginda atera nintzela etxe hartatik, eta gaur arte. Baina Joan Mari, euskalgintzan eta kulturgintzan, arlo askotan ikusi izan dugu bere onena ematen beti, 2003an bere onen hori kentzen saiatu baziren ere.

Halako itzala duen Torreal dai handiaren ondoan, beraz, ulertuko duzue txiki eta, Sarrionandiak behinola esan zuen moduan, soinean gabardina handiegia banerama bezala sentitzea. Errespetua, esker ona eta miresentza besterik ez ditut Joan Marirentzat, eta 29. aulkia berarekin partekatze ko ohorea.

## 2. Aretxabaleta

Ikasturte biribila da aurtengoa: Euskaltzaindiak 100 urte, euskara batuak 50 eta Aretxabaletako ikastolak ere mende erdia!

Euskaltzaindia Arantzazun, hemendik oso gertu, euskara batuaren nondik norakoak eztabaidatzen ari zen bitartean, Aretxabaletako guraso-talde bat herrian ikastola abian jarri nahian zebilen, ilusioz beteta eta, zalantzarik ez dut, burugogor. Nire mintzaldiarekin hasi aurretik eskerrak eman nahi dizkiet orduko herritarrei, baina bereziki artean ume ginenon gurasoei eta lehen andereñoiei, egin zuten apustua ez baitzen makala izan.

Gure aitari norbaitek esan zion, ni, alaba zaharrena izanda, ikastolara eramateko asmoaren berri izan zuenean, damutuko zela, egunen batean erabaki hori hartu izana aurpegiatuko niola. Bada, ez dut plaza hoberik irudikatzen gaur, gure herrian, zuen guztien aurrean, gurasoei kasurik egin ez izana publikoki eskertze ko. Eskerrik asko, aita eta ama, egindako apustuagatik. Bai, ikastolakumea naiz.

Eta orain bai, gatozen gaur hemen bildu gaituenera, sarrera-hitzaldiaren gai nagusira.

### 3. Hiztegitik Kofradiara

Euskaltzaindiaren mendeurrenak atzera begira jarri gaitu aurrera zuzen egin ahal izateko. Ehun urteko historia, mende bat euskara ehuntzen, etengabe behar eta garai berrietara egokitzen. Asko da bidean ikasia, eta horrek emango digu bultzada euskara finago ehuntzen jarraitzeko.

Hiztegi-kontuak izango ditut mintzagai datozen minutuetan. Hiztegi-kontuak eta kofradia, euskara ehuntzeko saregileak eta sare-konpontzaileak beharko ditugulako.

#### 3.1. Gaur arteko ibilbidea

*MAISU JUAN: Aren auaz, ta buruban, desberguenza gogorak esaten deustazuz.*

*PERU: Ze berba da desberguenzia? Nik eztakit. Esan gurako dozu lotsabagakerija. Egizu bada berba euskeraz.*

*Peru Abarka*

*J.A. Mogel*

Euskaltzaindiak sorreratik aipatu izan du Akademiaren hiztegiaren beharra, eta horren lekuko da 1920an, jaio berritan, *Iztegisail[li]a*<sup>1</sup> eratu izana, Azkue, Broussain eta Olabide kide zituela, Broussain kide izendatu eta gutxira zendu bazen ere. Saila sortu orduko hasi ziren lanean, besteak beste Seber Altube arrasatearrak urte horretan bertan prestatutako “Erderatiko-itzak, itz-barriak eta aintxiña-itzak” (Altube, 1920) txostena eztabaidatzen. Orduko eztabaida haietako batzuk ia gure egunetaraino iritsi dira. Altube maileguei bide egitearen aldekoa zen erabat, eta Azkue ere bai, modu apalagoan bazen ere:

Erdalitzak euskerazkotzat artzeari ezteritzayot egoki, kutxan gurerik degula beintzat. *Kabal[li]oa ta kar[r]joa ta binagrea ta tanbor[r]ja ta kopeta ta panaderoa ta petxoa ta kamisa ta kostura lisoa ta beste amaikareun mordoilokeri erri lauak*

---

1 1920ko otsailaren 16an eratu zen batzordea (Euskaltzaindia, 1919-20: 18).

= *publiku sentziloak* esan oi ditu ta guk *publikutxo* orri *gustu* emateko *zaldia* il egin bear ote ditugu? *gurdia*k eta *orgak* er[r]e? *ozpina* isuri? *ar[r]jazkoa* puskatu? *bekokia* ta *bularra* estali? *okinak* arrotzu? *atorra jokura legun* ta *guzti betiko gorde*? (Azkue 1920: 60-61).

Barkatuko ahal digu Azkue handiak, baina *Euskaltzaindiaren Hiztegia*n, *kopetaz* gain, *petxu*<sup>2</sup> ere jasoa du Akademiak, gipuzkera eta nafarrera markekin bada ere.

Altubek hitz “*mundu guztitarrak*”<sup>3</sup> (egungo terminologian, nazioartekoak) bere horretan onartzea proposatu zuen eta, hori bai, onartu zuen Azkuek:

[...] geyen geyenak beintzat, iguin ez ingira gabe sartuko nituke nik ere ta « política » *politica* [sic] izango genuke; « música » *musika* ; « orquesta » *orkesta*; « zepelin » *tzepelin*; « hotel » *hotel*, *h* ta *guzti*, *gare*zi ere ezpaita; ta « café » etxea danean *kafetxe*; ta zur[r]ut egiteko ur beltza bada, *kafe* esango nuke, *kape* nere er[r]iko ar[r]antzaleai ta *aketa* Hazpar[r]en-aldeko atso edaleai utzita. (Azkue, 1920: 55)

Hazparden ez bide dute *akeita* askorik hartzen egun, *Euskaltzaindiaren Hiztegia*n<sup>4</sup> “*gaur gutxi erabilia*” gisa markatua baita.

Eztabaida horiek eta beste asko ibili zituzten Akademiaren lehen urte haietan, irizpideak finkatu nahian. Azkueren zuzendaritzapean, gerraurrean, urteak egin zituen Euskaltzaindiak gaztelania-euskara hiztegia osatzen. Eta berriro heldu zion lanari gerra amaitu ostean, Zalbidek ondo jasoa duen bezala. (Zalbide, 1991).

Baina euskara hutsezko hiztegi baten arrastorik ez zegoen artean. 1956an oraindik ere abiatu gabea zen, hala eskatu baitzuen Aita Villasantek:

Oraindik eztugu euskera utsez egindako euskal iztegi bat, euskaldunari gauzen esanaiek bere izkuntzan azalduaz, katalanek duten bezala. (Villasante, 1956: 259-260)

Katalanen hiztegiak<sup>5</sup> 1932an ikusi zuen argia. Gurean, baina, ez zekiten nondik abiatu edo, hobeto esanda, denok ez zetozen bat hartu beharreko bidean<sup>6</sup>. Hara

2 “*petxu* iz. *Gip.* eta *Naf.* Bularra, bularralde. *Hiltzen naizenean, petxua ireki eta bihotza atera.*” (*Euskaltzaindiaren Hiztegia*, 2019-03-27an kontsultatua).

3 “*Mundu guzti edo geyeneko izkuntzaak eurendutako itzak: politika, musika, orkesta, hotel eta abar.*” (Altube, 1920: 49).

4 “*akeita* iz. g.g.er. *Kafea.*” (*Euskaltzaindiaren Hiztegia*, 2019-03-27an kontsultatua).

5 *Diccionari general de la llengua catalana* (Pompeu Fabra, 1932).

6 Urrestarazuk (Umandik) Euskaltzaindiari eskatu zion, gramatika bat idatzi behar zuela eta, ter-

Villasantek Arantzazun 1956an esandakoak:

Len ere izan zan eztabaida Euskaltzaindiak itz berrien sortzaille izan bear duen ala ez, eta ezetzaren alde zeudenak uste dut gelditu zirela gaillen. Auen aburuz, idazleek bear dute bidea urratu. Gaiak euskeraz erabilliz, sortuko du batek itz aukerako bat, beste batek beste bat, eta ala, berez bezala, poliki-poliki, sortutako itzaren balioak eta egokitasunak egingo du berau zabaldu ta finkatu dedin. Eta Euskaltzaindiak orduan, eta ez lehenago, au da, zabaldu-rik ta onarturik daudenean, itzok bere egingo ditu, eta izkuntzan sartuko. Bide ziurra ta zuurra, noski, baiño luzea, luzeegia bearbada. Beintzat ora-inarte idazle gutxi azaldu zaigu, bidea urratu nai duenik. Eta alaxe gaude; idazleak Euskaltzaindiaren zai, eta Euskaltzaindia idazleei begira. (Villasante, 1956: 259)

Corpusaren ideia-aren aurrekaria da hau? “zabaldurik ta onarturik daudenean, itzok bere egingo ditu, eta izkuntzan sartuko”, dio. Horixe da, bada, corpusen egitekoa: erabilerak jaso eta bidea egin dutenak bildu.

Handik hiru urtera, 1959an, “Euskaltzaindiaren agiria euskal itzei buruz” adierazpena eman zuen argitara Akademiak, Villasanteren hitzen argigarri, neurri batean:

Iztegi-saillean ezta bidezko itz asmatuetara jotzea ezin bestez baizik, eta orduan ere itzen erabidean izkuntzaren joerak gordeaz. [...] *Euskal-itzak dira euskera bizian sustraituak daudenak*. Sustrai ori zenbat eta sakonagoa izan, ainbat eta eskubide gehiago du itz batek erabillia izateko. Itz baten zabaluneak, antziñatasunak eta idazle zaarrak itz ori erabilli ote duten jakiteak, asko esan nai du itzaren sustraia zenbateiñokoa dan neurtzeko. Sustrai aundiko itzak, bada, auskal-itzak [sic] dira, naiz eta erderatik etorri. [...] Beraz, etxeko biurtuak dauzkagu, gure gureak dira itz oiek. Euskal-itzak dira bada, erderatikakoak izanarren. Itz oiek eskubide osoz erabilli ditezke, eta oien lekuan erabiltzeko asmatu diran itz berriak eztira geienetan euskal-itzak eta eztute aiek ainbat eskubide erabilliak izateko. [...] Euskaltzaindiak, bada, itz auek eta antzekoak diran beste asko eskubide osoz erabilli litezkeala erabagitzen du, euskaldunak, jatorrak eta garbiak diralako. Eta idazle ta izlariei erabilli ditzatela eskatzen die, itz asmatuetara jo gabe. Berebat, izkuntza berezien

---

minologia erabakitzeo, “gramatika-alorrean bearren diren gauzak adierazteko”. Eta hala jaso zuen Villasantek: “Orregatik-edo, dio Urrestarazu jaunak, Euskaltzaindiak aurrea artu bear lukela auzi ontan: izen batzuk autatu ta gomendatu bear lituzkela, Euskaltzaindiaren itzalpean onartuak ta erabilliak izan ditezten” (Villasante, 1956: 259).

gaiñetik zabaldurik dauden kultura eta zivilizaziozko itzak ontzat artzea eta erabiltzea Euskaltzaindiak begi onez ikusten du. Adibidez: politika, teknika, literatura, liturjia, metro, kilometro ta abar. (Euskaltzaindia, 1959: 214-215)

Adierazpen honek Azkueren eta Altuberren kezkei erantzun garbia ematen die batetik, baina harago doa, hitzaren hedadura, tradizioa eta idazle zaharrak kontuan hartu behar direla baitio, alegia, erabilera-tradizioari begiratu behar zaio.

Ideia hori guztiz barneratua zuela proposatu zuen Mitxelena 1968ko Arantzazuko biltzarrean euskal hiztegiaren beharra, oso maila apaletik abiatuta:

Beharrezkoa dugu, bederen, hiztegitxo bat, ia ortografiarekikoa huts-hutsik, nahi-ta-ezko badu ere hitzen esan-nahia laburzki adieraztea, zertaz ari den jakin dezagun. Orain idazten diren euskalkiak kontuan edukitzekoak dira, noski, batasun osorik ez duguino eta, euskera idatzia duenez gero oinharri, zenbait idazle hautaturen hiztegiaren gain eraiki behar litzake. (Mitxelena, 1968: 214)<sup>7</sup>

Eta eman zuen bere fruitua, Arantzazuko biltzar hartatik *Batasunerako Hiztegia* (Euskaltzaindia 1968) atera baitzen, txikia, 625 forma besterik ez zituena, baina garai hartarako lorpen handia izan zena. Bazegoen, 50 urte lehenagoko irizpideekiko eztabaiden eta hainbat saioren ondoren, adostutako zerrenda gutxieneko bat behintzat. Aurrerago etorri zen, 1975ean, *Zortzi urte arteko Ikastola Hiztegia* (Euskaltzaindia, 1975), 1784 forma biltzen zituena, eta H letrari buruzko zerrenda (Euskaltzaindia, 1979) Bergaran erabakita geratu zen 1978an, tartean hiztegitxo batzuk izan baziren ere<sup>8</sup>.

Baina Euskaltzaindiak ez zuen hitzen zerrenda-multzo bat besterik. Hiztegitza batzorderik ere ez zuen, 1981ean sortu baitzuen Akademiak, handik bi urtera onartu eta abian jarriko zena.

Ordurako, baina, hiztegitza modernoak hamarkada bat zeraman bide berriak

---

<sup>7</sup> Casaresek (Casares, 1950) esana zuen hizkuntza baten lexikoa biltzeko modurik zientifikoena historikoa edo diakronikoa zela, eta horren baitan baliatu behar zirela gainerako metodoak. Oso ondo ezagutzen zituen beste hizkuntza batzuetan landutakoak (*The Oxford English*, Estatu Batuetako *New Standard Dictionary*, nederlandarazko *Woordenboek der Nederlandsche Taal* eta Suediako Akademiako *Ordbok över Svenska Språket*, besteak beste), eta Mitxelena ere bazuen horren berri, Arantzazuko biltzarrean autore hautatuak proposatu zituenarako.

<sup>8</sup> 1973an, adibidez, *Merkatalgo izendegia* eman zuen argitara Akademiak (Euskera, 1973, 18. liburukia, 215-229 or.).

urratzen. Ez gurean, bistan denez. Ordura arte produktutzat hartua izan zena, zientzia gisa onartzen hasia zen kanpoan. Tradizioan zientzia hizkuntzalaritza zen, eta hiztegitzinta artisautza-lan baten emaitza besterik ez (Pruvost, 2005<sup>9</sup>). RAEk, adibidez, 1984ko edizioan sartu zuen *lexicografía* sarreran bigarren adiera, ordura arte ‘Técnica de componer léxicos o diccionarios’ baitzen. 1984ko eguneratzean ‘Parte de la lingüística que estudia los principios teóricos en que se basa la composición de diccionarios’ adiera gehitu zuen.

Gure mugetatik kanpo hiztegiak egiteko modua aldatzen hasia zen, beraz, corpusean oinarritzen hasita zeuden, teknologia —orduko teknologia— lexikografiara ere hurbiltzen hasia zen. Lanerako datu-baseak ere ez zituzten arrotzak, egunerokoan 90eko hamarkadan erabiltzen hasi baziren ere (Atkins & Rundell, 2008).

Hiztegien helburu pedagogikoa nabarmentzen hasi ziren (Dubois, 1971), hau da, hizkuntzari buruzko hutsuneak bete behar ditu hiztegiak, baina, aldi berean, objektu kulturala ere bada, gizartearen testigantza ematen baitu. Estaldura eta irisgarritasuna<sup>10</sup> lehentasun gisa jarri zituzten, eta “ezagutu zure erabiltzailea” (*know your user*) goren mailara eramane nahi izan zuten. Izan ere, hiztegi bat ona izango da erabiltzen bada; hau da, bilatzen duzuna eskaintzen badizu (Atkins & Rundell, 2008).

Alegia, metalexikografiaz —edo lexikografia teorikoaz— hitz egiten hasiak ziren: lexikografia ez da hiztegiak egitea bakarrik —hori lexikografia praktikoa da—, hiztegiari buruzko ikerketa egitea ere bada. Hau da: hiztegiaren egitura, tipologia, edukia, helburua, erabilera eta beste jakite-arloekiko lotura (lexikologia, soziolinguistika, semantika, estatistika eta informatika, besteak beste) ere metalexikografiaren ikerketaren parte dira (Anglada, 1991; Ahumada, 2016).

Ez dut zalantzarik 70eko hamarkadan indarra hartzen hasia zen lexikografia modernoaren (Dubois, 1971; Zgusta, 1971) berri ere bazutela Euskaltzaindiaren Hiztegitzinta batzorde berriko kideek, bestela ez baitago ulertzerik nola asmatu zuten egindako plangintza zabal bezain zehatz hartan, oinarrietatik abiatuta. Hala ere,

---

<sup>9</sup> Pruvostek argi azaltzen du: “Une nouvelle discipline prend donc naissance : la *métalexicographie*. La lexicographie, jusque-là, principalement liée à un besoin du quotidien, perçue surtout comme un outil, fait désormais partie des corpus que l’on étudie pour mieux comprendre l’histoire du genre et le fonctionnement de la langue. Ce faisant, les dictionnaires commencent à ne plus être seulement l’œuvre de philologues et d’excellents artisans, ils deviennent aussi affaire de linguistes”. (Pruvost, 2005: 10).

<sup>10</sup> Estaldura (*coverage*): informazio-kopurua; eta irisgarritasuna (*accessibility*): erabiltzaileek erraz erabiltzeko modua.

urteak behar izan ziren emaitza eskuratzeko, aurrelanak ez baitziren nolana hikoak izan. Baina, ondo ezarritako zimenduek beti dakarte uzta ona, epe luzera bada ere.

Batzordeak, hasteko, maileguak nola egokitu<sup>11</sup> eta euskarak hitz berriak sortzeko<sup>12</sup> zituen baliabideak finkatzeko irizpideak zehaztu zituen, LEF batzordearen bidez. Oinarriak ezarri zituen, beraz. Eta, irizpideen lanketarekin batera, modu paraleloan, erabileraren berri emango zuten corpusak osatzen hasi zen. Estreinakoz corpusak azaldu ziren Akademiaren baitan, bai eta euskararen baitan ere, gure mugetatik kanpo erabiltzen hasita zeudenak. Garai honetan sortuak dira *Orotariko Euskal Hiztegia*<sup>13</sup> (orduan *Euskal Hiztegi Nagusia* izendatu zutena) eta *XX. mendeko Euskararen Corpusa*<sup>14</sup> (urtetan EEBS edo *Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa* gisa ezagutu duguna). 80ko hamarkadan ezarri zituen egungo egoerara ekarri gaituzten zimendu sendoak: lexikologiako irizpideak eta corpusak. Azkuek eta Altubek 1920an hasitako eztabaida haiek hemen bukatu ziren neurri handi batean, bai eta Villasanteren 1956ko kezka ere.

Oinarriak ezarrita, berriro ere hiztegiaren beharra jarri zuten mahai gainean, horretarako (ere) sortua baitzen Hiztegi gintza batzorde berria. Baina kanpoan zebilen hiztegi gintza-maila horretara iritsi aurretik, euskal formen ortografia bera erabaki beharra zegoen, alegia, hiztegiaren aurretik ortografia-hiztegia bideratu behar zen (hau ere Mitxelenak 1968an aipatua zuena)<sup>15</sup>. Azkaratek berak hala proposatu zuen Laurgainen:

Gaurko errealitatea ikusiaz, [...] ez ote askoz praktikoago eta mesedegarriago egungo euskararen hiztegia osatzea, hasierako 2.000 hitzeko kutxa hura gaurkotuz eta zabalduz? [...] Azken batean, Euskaltzaindiaren ardura litzatekeen hiztegi arau-emaile baten hastapena egon daiteke hor. Eta hastapen horretan, Mitxelenak behinola esan zuenez, errazenetik hastea litzateke egokiena; hau da, formak ezartzetik alegia, forma horretan hitzen erabideak ere bame leudekelarik. (Azkarate, 1991: 1116).

---

11 *Maileguzko hitz berriei buruz Euskaltzaindiaren erabakiak* (1986) liburukia: <https://www.euskaltzaindia.eus/hizkuntza-baliabideak/hiztegi-digitalizatuak/maileguzko-hitzen-idazkera>

12 Hitz-elkarketari buruzko lau liburukiak: <https://www.euskaltzaindia.eus/hizkuntza-baliabideak/hiztegi-digitalizatuak/hitz-elkarketa>. Eratorpenari buruzkoak ez dira liburu gisa argitaratu.

13 [https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com\\_oehberria&task=bilaketa&Itemid=413&lang=eu](https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_oehberria&task=bilaketa&Itemid=413&lang=eu)

14 <http://xxmendea.euskaltzaindia.eus/Corpus/>

15 Konparazio baterako, Pompeu Fabrak 1917an egina zuen katalaneko *Diccionari ortogràfic-a*, Euskaltzaindia bera sortu aurretik.



Horrela, bada, 1991n, Zalbidetik 10.000-20.000 hitz inguruko ortografia-hiztegia bideratzea proposatu zuen, 50.000ra iritsi nahi zuenik bazen ere, “euskara batuaz dihardugunean ere hainbat hitz eta esapide justu nola idatzi behar den ez dugu[lako] jakiten” (Zalbide, 1991: 1113), zioen. Bide ziurra eta zuhurra, baina luzea, Villasantek esango zukeen bezala.

Urte horretan bertan, Sarako biltzarrean, hiztegia lantzen hasteko egoera egokia zela pentsatuta, Hiztegitik batzordeak landutako “Hiztegi batua: lanketa- eta onespenezkoak” dokumentua onartu zuen Euskaltzaindiak:

Haziminek ditu euskal hiztegiak. Nerabegaroko duda-muda eta zalantzetan murgildurik bezala dabil. Euskaraz idazten dugunok behintzat halaxe gabiltza [...]. Alabaina, zalantzak zalantza, inoiz baino egoera hobean gaude hiztegi batua lantzeko, inoiz izan ez dugun informazioa dugulako gaur egun literatur tradizioaz (OEH) eta erabilera garaikideaz (EBBS). Hala uste dugu behintzat batasunaren oinarria batez ere iturri horietan bilatu behar dela pentsatzen dugunok. (Sarasola, eta beste 1991: 135-136)

Eta handik bi urtera hiztegia bera lantzeko irizpideak zehatz-mehatz aurkeztu zituen batzordeak (Aduriz, 1994; Hiztegi Batuko batzordea, 1994).

Hor abiatu zen egungo *Euskaltzaindiaren Hiztegitik* ekarri gaituen bidea.

2000. urtean, bederatzi urteren buruan, ikusi zuen argia 20.000 forma biltzen zituen *Hiztegi Batua* gisa ezagutzen dugun hiztegi ortografikoak (Euskaltzaindia, 2000), eta orduan hasi zen Euskaltzaindia Europan —eta mundu zabalean— ia lau hamarkada lehenago abiatua zen hiztegitik modernoak aplikatzen. Orduan hasi zen, eta ez lehenago, *Euskaltzaindiaren Hiztegia* osatzen, datu gordinetatik hiztegitik rako bidea egiten (Atkins & Rundell 2008).

Quemadak (Quemada, 1987, 1990) esana da hiztegia osatzeko eredu linguistikoak, estralinguistikoak, testuinguru soziokulturala eta ekonomikoa izan behar direla kontuan, hau da, hiztegiak informazio esplizitua —gramatikala, semantikoa, orokorra— eta inplizitua —helburuaren arabera: didaktikoa, erabilera— izan behar dituela aldi berean. Bada, begien aurrean izan zuen hori guztia Euskaltzaindiak, bai eta azken urteetan plazaratutako bestelako berrikuntzak ere: definizioen zehaztasunari buruzkoak, gramatika-informazio zehatzaren beharra, informazio pragmatikoa, fraseologiaren tratamendua eta, bereziki, definizioa argitzeko adibi-

detegiaren beharra (Pruvost, 2005; Atkins & Rundell, 2008; Ahumada, 2016).

Bidea ez da erraza izan, ezta laburra ere, baina hasierako kezka, eztabaida eta ametsek badute erantzuna, eta etorkizunerako bide-orria idatzia.

## 3.2. Euskaltzaindiaren Hiztegia

### 3.2.1. Zimendu sendoak: *corpusak*

*Iturri zaharretik  
edaten dugu,  
ur berria edaten,  
hitz bizia aditzen, beti berri den hitza,  
betiko hizkuntza zaharretik.*

J.A. Artze

Orotariko *Euskal Hiztegian* dugu abiapuntua, hori da gure oinarria. Eta hori baliatu du *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* berak etxea zimenduetatik eraikitzen hasteko, honen oinarri izan zen *Hiztegi Batuak* hala jarri baitzuen abian egun bizirik dirauen bidea<sup>16</sup>, atzeak erakusten baitu aurrea nola dantzatu. Iturri zaharretik datorren ur berria, alegia. Horiek ere behar ditugu egungo *Euskaltzaindiaren Hiztegian*, gure altxorraren parte baitira.

Hor dugu abiapuntua, baina XX. mendean sortu zen Akademia, XX. mendean

---

<sup>16</sup> Alegia, lehendik Akademiak onartuak zituenak bai, baina OEHN maiztasun batetik gorakoak ere bai. Nolanahi ere, ez zen *Hiztegi Batuaren* hasierako hartan bildu eta tradizioari atea itxi, ez. Ora in ere, *Euskaltzaindiaren Hiztegi*ko lantaldeak horretan dihardu, OEHNko azpisarrerak berrikusten eta hiztegirako berreskuratzen. Badira bere garaian jaso gabe geratu zirenak, OEHN oraindik ere osatzen ari baitzen. Baina badira gaur bizirik dirauten esapideak, lokuzioak, hiztegiak jaso gabe dituenak, edo adibide gisa ezkutatu samar daudenak, bai eta adiera berria hartu dutenak, berrezarpen semantikoaren bidez.

hedatu zen euskara irakaskuntzara, lan-mundura, komunikabideetara, administrazioa eta mundura, orduan eskuratu zuen ofizialtasuna —ez euskararen lurralde osoan, tamalez—, orduan izan zen euskarazko ekoizpenaren pizkundera. Eta horrek ere osatu eta indartu ditu gure hasierako zimenduak: atzo goizekoak dira hauek, gaurkora ekarri gaituztenak. Horren lekuko da *XX. mendeko Euskararen Corpusa*, etxearen lehenengo solairua atontzen lagundu diguna, beheko solairu nagusia tradizio urrutiagokoak osatua baitzuen.

Badakigu, beraz, nondik gatozen, nork eta nola ekarri gaituen hona. Baina, non gaude eta, batez ere, nora goaz? Gu hemen eta orain bizi gara, eta horren isla ere jaso beharra daukagu bigarren solairua prestatzen hasteko. Etxea atontzen dugun bitartean bertan bizi izateak beti izaten ditu trabak, ez dugu distantziak ematen duen perspektibarik izaten, batzuetan deseroso ere sentitzen gara, eta aldaketak etengabeak dira gainera. Baina tresna egokiekin dena da posible. Badugu *Lexikoaren Behatokia corpusa*<sup>17</sup>, XXI. mendeko euskararen isla etengabe eguneratua, baina horrek ere orotarikoa izan beharko luke, zabalagoa, orekatuagoa, erreferentziazkoa, *Euskararen Erreferentzia Corpusa* izan beharko luke (Urkia, 2007, 2008). Corpusak, gainera, ez ditugu hiztegitigileek bakarrik erabiltzen: ezinbestekoak ditu hizkuntza aztergai duen edonork.

### 3.2.2. *Euskaltzaindiaren Hiztegia, gaur*

*Hiztegiak erlojuak bezalakoak dira:*

*txarrena ezer baino hobea da,*

*eta onena ezin espero dezakegu guztiz zehatza izatea.*<sup>18</sup>

Samuel Johnson

*Euskaltzaindiaren Hiztegia* hiztegi arauemailea da, *Hiztegi Batua* adieraz, adibi-

---

<sup>17</sup> <http://lexikoarenbehatokia.euskaltzaindia.eus/>

<sup>18</sup> “Dictionaries are like watches; the worst is better than none, and the best cannot be expected to go quite true”.

dez eta azpisarreraz hornitzen duena (38.878 sarrera, 7.302 azpisarrera eta 63.507 adiera). Tradizioan eta egungo corpusetan oinarriturik, hitz bakoitzari dagozkion adibide argigarriak eskaintzen dizkio erabiltzaileari. (*Euskaltzaindiaren webgunea*, 2019-01-11ko eguneratzea).

Hala aurkezten du Euskaltzaindiak hiztegia sarean:

Baina hiztegi formak lantzeko irizpideak 1992an finkatu zituen orduko Hiztegitzinta batzordeak (Aduriz, 1994, Hiztegi Batuko batzordea, 1994). Bai ondo finkatu ere, oraindik guztiz baliagarriak ditugu eta. Egunero-egunero iristen zaizkigu hitz berriak, baina Euskaltzaindiak urari bere bidea egiten utzi behar dio, hitz bakoitzak bere erritmoa baitu<sup>19</sup>; batzuetan moda kontuak izaten dira, etorri orduko ahazten ditugun hitzak. Guk corpuseratu egiten ditugu eta, ibiliaren ibiliaz lekua hartu dutenean, orduan hiztegitratzen ditugu, betiere maileguei eta hitz-eraketari buruzko irizpideak ahaztu gabe.

Zenbat “utzi oraingoz” esan ote dugu lantaldean forma berri baten aurrean, handik denbora batera “barrura” esateko? *Webgune* hitza ez zen berehalakoan sartu hiztegian, moda kontua izan zitekeela argudiatuta utzi genuen zain<sup>20</sup>, erabiliaren erabiliaz —eta zazpi urteren buruan— hala jaso beharra zegoela ikusi genuen arte, geratzeko etorria baitzen, *kalimotxo*<sup>21</sup> bezala, bide batez esanda, batzuen gustuko ez bazen ere. Eta ate-joka dugu aspaldi *zurito*. Ba al du ordain egoki erabilirik (hori da kontua, erabilia izatea, idatzian betiere) forma hori kanpoan utzi ahal izateko?

Maileguen kasuan, egokitzekoa den edo bere horretan jasotzekoa den ikusi be-

---

19 Maileguen kasuan, RAEk bost urteko epea uzten du forma bat hiztegitratzeko den ala ez erabakitzeko. Gurean ez dugu epemuga zehatzik ezartzen, epe zabalagoa eta erabilera-maiztasuna hartzen ditugu kontuan.

20 Hau izan zen hiztegi lantaldearen proposamena, 2004-01-13koa: “oso berria da, bidea egin gabea; eta pasakorra izan liteke.” (*Hiztegi Batu Oinarriiduna*, s.u. *webgune*). Baina, erabileraren gorakada eta zabalkundea ikusita, 2011n onartu beharra izan zuen forma. Gaur hala ageri da hiztegi sarrera: “**webgune** iz. Interneteko gune birtuala, erakunde edo kideko batek bere buruari buruz edo gai jakin bati buruz informazioa emateko duena, web orriz osatua dena eta, askotan, beste webgune batzuetarako lotura ere eskaintzen duena. *Durangoko Azokak urte osoan zehar ateak zabalik ditu durangokoazoka.com webgunean. CIA informazio eske dabil bere webgunean. Webguneko eduki ia guztiak euskaraz idatzita daude.*” (*Euskaltzaindiaren Hiztegia*, 2019-03-27an kontsultatua).

21 Hitz hau isiltzea erabaki zuen Euskaltzaindiak 1997an, baina 2010ean onartu egin behar izan zuen, honela: “**kalimotxo** 1 iz. Ardoa eta kola-freskagarria nahasiz eginiko edaria. *Mutiko talde bat hurbildu zaie, kalimotxo botilak eskuetan. Izaro, bere lagun guztiak bezala, jaietara joaten zen, dantzaz egiten zuen, eta baita kalimotxo edan ere. 2 iz. Baso bat kalimotxo. Beste kalimotxo bat eskatu zuen.*” (*Euskaltzaindiaren Hiztegia*, 2019-03-27an kontsultatua).

har da, nazioartekotasun-graduari (“hitz mundu guztitarrei”, Altuberen hitzetan) begiratu behar zaio, inguruko hizkuntzek hartu duten bideari ere bai, hizkuntza ez baita isolatua bizi, euskara ez baita hobea edo aberatsagoa izango *telefono*<sup>22</sup> nazioartekoaren ordeztu *urrutizkin*<sup>23</sup> asmatua erabilita. Exotikoagoa izango da, baina hori da bilatzen duguna ala hiztunen beharrei erantzungo dien hizkuntza modernoa? Txukunagoa izango al da Altubek eta Azkuek proposatu zuten *kaferen*<sup>24</sup> ordeztu *akeita*<sup>25</sup> erabiltzea? Ikus *Orotariko Euskal Hiztegiak akeita* sarreran argitzen duguna:

Esá palabra —dice J. Urkijo (*La literatura poética vasca* 10)— la inventó una vieja de aquende el Pirineo, para pedir café a una amiga suya, sin que se enterasen sus vecinas. El Dr. Broussain comunicó dicho vocablo al Sr. Azkue y por omisión del primero o distracción del segundo, no apareció la debida aclaración en el Diccionario Vasco-Español-Francés. DRA. [OEh, s.u. *akeita*]

Bada ezinbesteko beste irizpide bat ere, Ipar/Hego banaketari dagokiona, Iparraldeko euskaldun batek ez baitu gaztelaniarik jakin behar euskal hitz bat ulertzeko, ez eta Hegoaldekoak frantsesa forma bat konprenitzeko<sup>26</sup>. Eta hor gorde behar da, bai ala bai, oreka, batzuetan ia ezinezkoa bada ere. Nola ditugu, bestela, *gasolina*<sup>27</sup>

22 “**telefono** 1 iz. Ahotsa edo zernahi hots igortzeko behar diren tresnen eta harien sistema. *Telefono elkarrizketa. Telefono-zenbaki berria.*

2 iz. Sistema horren bidez hitz egiteko tresna. *Telefonoa hartu, eskegi. Telefono hotsa. Tirrin... tirrin... telefonoa deika.*” (*Euskaltzaindiaren Hiztegia*, 2019-03-27an kontsultatua).

23 “**urrutizkin** iz. g.g.er. Telefonoa.” (*Euskaltzaindiaren Hiztegia*, 2019-03-27an kontsultatua). Asmatua eta gaur gutxi erabilia (g.g.er.) da, baina badu tradizioa, garai batean nagusitu egin zen eta. Horregatik, gaur forma estandartzat *telefono* hartzen bada ere —horregatik da definitzailea—, hiztegian jaso beharra dago, erabili egin baita.

24 “**kafe** 1 iz. (Multzokaria). Kafeondoaren fruituaren hazia, txigortuz gero beltza dena. Ik. **akeita**. *Zaku bat kafe. Kafe alea, garaua, bihia. Kafea eho.*

2 iz. Kafe ale txigortu eta birrinduaz egiten den edari beltz pizgarria. *Kafea egin. Kafea hartzen, edaten. Kafe hurrua bat. Kafe beltza, hutsa: esnerik bota ez zaiona. Kafe hondarrak.*

3 iz. Kikara bat kafe. *Mutilak bi kafe atera zituen. Kafe beltz bat, mesedez!*

4 iz. Ipar. Kafetegia. *Kafe eta ostatuetan.*” (*Euskaltzaindiaren Hiztegia*, 2019-03-27an kontsultatua).

25 “**akeita** iz. g.g.er. Kafea.” (*Euskaltzaindiaren Hiztegia*, 2019-03-27an kontsultatua). Hau ere g.g.er. markarekin sartu da, garai batean oso erabilia izan baita, jatorria gorabehera.

26 “Ez eta ez dira erabat euskal hitzak gaztelera edo frantsesa jakin gabe euskaldun batek ezin adi ditzakeenak, non baitirudi zenbait euskal telekomunikabidetako zenbait programa aditzeko bortxatzen direla Iparraldeko euskaldunak lehenik gaztelera ikastera eta Hegoaldekoak frantsesa.” (*Euskaltzaindia* 1991: 446).

27 “**gasolina** iz. Heg. Petroliotik ateratzen den isurkaria, erregai gisa erabiltzen dena. Ik. **ezantza**. *Zenbat litro gasolina erretzen du auto horrek?*” (*Euskaltzaindiaren Hiztegia*, 2019-03-27an kontsultatua).

eta *ezantza*<sup>28</sup> hiztegia? Ez zegoen bakarria hautatzeko modurik, inor baztertuko ez zuenik behintzat, eta zeinek bereari eutsi dio oraingoz, erabilera-marka ondoan duela betiere: *Hegfoaldea*] *gasolinak*, *Ipar[raldea]* *ezantzak*.

Azken urteotan zoritxarrez maizegi entzun eta erabili dugun ingeleseko *bullying* geureganatzeko ere zain egon ginen. Batzuek mailegua bere gordintasunean erabiltzen zuten (*bullying*, alegia); beste batzuek, aldiz, euskarak berea duen hitz-eraketaren bidea hautatu zuten, *eskola-jazarpen*<sup>29</sup> erabilita. Bada, azken hau atera da garaile, eta bestelako *jazarpen* motei ere bidea ireki die osaera honek: *sexu-jazarpen*, *laneko jazarpen* eta, zoritxarrez, etorriko diren *jazarpen* berriei, etengabe ingeleseko *-ing* bukaerara jo gabe, halako gutxi batzuk geureganatuak baditugu ere (*casting*, *holding* edo *trekking*<sup>30</sup>, esaterako). Izan ere, hizkuntza erabiltzaileena da, ez Euskaltzaindiarena. Akademiak erabilerak jaso, ondo sortuak dauden aztertu, forma eman eta zabaldu egiten ditu, ez besterik.

Horregatik, batzuetan erabilerak irizpideekin edo hizkuntzaren beraren arauekin talka egiten du, berriki moldatu dugun *dirulaguntza*<sup>31</sup> formaren idazkerarekin

28 “**ezantza** iz. *Ipar*. Gasolina. *Ezantza xorta bat baizik ez zait gelditzen beribilean.*” (*Euskaltzaindiaren Hiztegia*, 2019-03-27an kontsultatua).

29 “**eskola jazarpen**, **eskola-jazarpen** Eskola bateko ikasle batek beste ikasle baten edo ikasle-talde baten aldetik tratatu txar jarraitua, fisikoa nahiz morala, jasotzea. *Barakaldoko eta Santurtziko udalek webgune berria aurkeztu zuten atzo, eskola-jazarpeneko kasuen aurrean biktimak aholkatzeko.*” [s.u. **eskola; jazarpen**]. (*Euskaltzaindiaren Hiztegia*, 2019-03-27an kontsultatua).

30 “**casting** iz. Ikuskizun batean aktore, aurkezle, modelo edo figurante gisa aritzeko egiten den hautapropa. *‘Hiztegitik hortzera’ saioaren aurkezlea bilatzeko, casting bat antolatu zuten. Diru mordoa inabaztea eta telebistan irteteko gogoia izatea dira ‘Basetxea’-ko castingera aurkezteko amuak.*; “**holding** iz. Ekon. Enpresa multzo baten akzio gehienak dituen eta horiek kudeatzen dituen finantza-sozietatea. *Holdigaren akziodunei buruz zalantzak eta bidezko susmoak dituela adierazi zuen.*”; “**trekking** iz. Mendian barrena oinez egiten den ibilaldi luzea. *Zeharkaldi luzea da, baina Nepalen egin daitekeen trekking ederrenetakoa.*” (*Euskaltzaindiaren Hiztegia*, 2019-03-27an kontsultatua).

31 Izen + izen motako izenak (ihartuak ez direnak behintzat) bereiz edo marratxoz idaztekoak dira 25. arauak (*Hitz elkartuen osaera eta idazkera*) dioenez. Horraino, denok ados. Bide horretatik arautu zuten Euskaltzaindiak *diru(-)laguntza*. Eta, euskaldunak hizkuntzari dagozkion arauak betetzen inor baino zintzoagoak garenez, ordura arte lotuta idazten zuten ia denak marratxoz edo bereiz idazten hasi ziren. Ia denak, intumisoren bat izan zelako tartean, eta ez nolana hikoia. Administrazioan du erabilera-maiztasunik handiena hitz honek, eta urduri jarri genituen, nonbait, *foru-dirulaguntza* moduko hiru osagaiko hitz elkartuak egiteko bidea etenda ikusi zutelako. Batzuek, gogoz kontra bazen ere, bete egin zuten araua; beste batzuek ez. Eta Euskaltzaindira helarazi zuten haien ezinegona, ondo argudiatuta. Bada, tarteka Akademiak ere atzera egin behar izaten du, zuzentasunak praktikotasunarekin talka egiten duenean, onena egokitzea izaten baita. Eta halaxe egin berri du Osoko bilkurak: “**dirulaguntza** Diruz ematen den laguntza, bereziki Administrazioak edo erakunde pribatu batek

gertatu den bezala. Erabiltzaileek ondo argudiatutako eskaerak kontuan hartzen ditu Akademiak eta, hala dagokiola ikusten duenean, atzera egiten ere badaki, euskara erabiltzaileena baita, ez araugileena. Eta Euskaltzaindiaren lana ez da hitza hiztegian sartzen denean bukatzen, erabiltzaileak hitza bere egin eta erabiltzen duenean baizik.

Lexikografia ez delako artisau-lana, kanpoko faktoreak ere bere egin behar dituelako. Horrek Akademiaren malgutasuna erakusten du, gainera, eta gizartearen zerbitzura dagoela islatzen.

2000. urterako zehaztu zituen Euskaltzaindiak hiztegia bera osatzeko irizpideak ere, makroegitura eta mikroegitura, garaiko estandarrak kontuan hartuta. Errazagoa da lexikografoarentzat, araugintza mailan ari denean, ortografiari dagozkion kontuak zehaztea —alegia, aipatu berri ditugun hiztegi-formei buruzkoak— esanahi lexikoaren domeinuari buruzkoak baino (Zgusta, 1971). Baina heldu zion horri ere.

Sarrerren deskribapen linguistikoan hiru osagai hartu behar dira kontuan (Du Bois, 1971): morfologikoa, sintaktikoa eta semantikoa. Hauek, artikulua ondo egituratua badago, hizkuntzaren ezaugarriak modu egokian ezagutzea ahalbidetuko dute.

Sarreraburuak eta azpisarrerak nola banatu zehaztua zegoen lehendik, *Hiztegi Batuaren* garaitik, baina definizio-eredua<sup>32</sup> eta, horrekin batera, adibidetearen garrantzia finkatu zen, maiz adibideek lagunduko baitute definizioa eta erabilera argitzen<sup>33</sup>. Eta, horrekin batera, ohar gramatikalak, euskalki-, erregistro- edo era-

---

gizabanako bati edo beste erakunde edo talde bati helburu jakin baterako ematen dion laguntza ekonomikoa. *Gobernuak 2.300 euroko dirulaguntzak emango dizkie kalteak izan dituzten herriei izurriteari aurre egiteko. Lana aurkitu ezean dirulaguntza jasoko du familiak. Aitaren dirulaguntza zuelako.* (Euskaltzaindiaren *Hiztegia*, 2019-03-27an kontsultatua).

32 Definizioak neutroa, xehetasunetan sartu gabe, baina ulergarria izan behar du. Hiztegi arauemaileari ez dagokio ez informazio entziklopedikoa, ezta espezializazio mailakoa ere.

33 Adibideen bidez eskaini ahal izango dugu informazio estralinguistikoa edo “lexikulturala”, neurri batean entziklopedikoa, nahi bada, Pruvostek (Galisoni hartuta), “information lexiculturelle” deitzen duena:

Tous les mots employés dans une communauté linguistique dont le lexicographe est le légitime descripteur n’ont pas nécessairement une charge culturelle partagée, mais cependant à y regarder de plus près, ajouter une définition lexiculturelle s’impose pour beaucoup. Pour ne donner que quelques exemples supplémentaires, un mot comme *muguet* est en France forcément associé au 1er

bilera-markak, jakite-arloa, hedaturazko edo irudizko erabilerak eta erreferentziak nola landu ere zehaztu behar izan ziren. Eta hori guztia oso modu xehean landuta, betiere erabiltzailearentzat ulergarri izan behar zuela ahaztu gabe.

Horiek guztiak esanda, ezer ez da betiko, are gutxiago hiztegia. Moldatzen eta eguneratzen ez den hiztegiak ez du deusetarako balio (Stamper 2018). Lexikografia ez da zerrenda alfabetikoan esanahia jasotzea bakarrik: alderdi psikologikoa eta soziologikoa ere kontuan hartu behar da. Gizartearen zerbitzura, behar errealei lotua egon behar du. Horregatik da hain garrantzitsua etengabe berrikustea. Gizartea aldatuz doa eta, halaberharrez, hiztegiak ere egokitu beharra dauka. Familia-ere-  
duak ez dira duela urte batzuetakoak, bikote-harremanak pertsonen artekoak dira, ez gizonen eta emakumeen artekoak soilik, ezkontzak ez dira elizak bakarrik egiten, erlijio- eta arraza-aniztasuna gure gizartearen parte dira egun, genero-berdintasuna oinarritzko printzipioa da behingoz, eta hori guztia islatu behar du hiztegiak. *Amaginarreba* ‘ezkontidearen ama’<sup>34</sup> da, ez senarrarena edo emaztearena; *hiesa* ‘egoera klinikoa’<sup>35</sup> da, eta Giza Immunoeskasiaren Birusa (GIBa) ez da gaitza, infekzioa baizik. Eta Azkuek erabilitako “Hazparneko atsoen” kontua ez da egokia, *atso*<sup>36</sup> hitza markatua baita, hiztegiak ohar bidez argitzen digun moduan. Baina jaso beharra dago, helburu didaktikoa ere baduelako hiztegiak. Horregatik daude lagunartekoa, peioratiboa eta bestelako erabilera-markak, erabili egiten diren neurrian hiztegiak

---

mai, jour de la Fête du travail, cette fleur en représente en effet le symbole. Elle est vendue à ce jour précis : acheter du muguet le 15 mai ou le 15 avril n’aurait aucun sens pour un français. Au reste, il n’en trouverait pas chez les fleuristes... Aussi, définir le muguet comme une « liliacée à petites fleurs blanches d’une odeur douce et agréable » est certes très intéressant, on est en pleine « culture savante », mais ne pas ajouter dans un exemple ou dans un développement encyclopédique qu’il s’agit d’une fleur symbolique vendue le 1er mai dans les rues, dans toutes les boutiques, dans le métro, etc., c’est passer à côté de l’essentiel. La composante lexicoculturelle doit ici être mentionnée sous peine de présenter au lecteur du dictionnaire une définition du mot des plus lacunaires. (Pruvost, 2005: 19).

34 “**amaginarreba** iz. Ezkontideetako baten ama beste ezkontidearentzat. *Ama alabaren aurka eta amaginarreba errainaren aurka ezari.*” (*Euskaltzaindiaren Hiztegia*, 2019-03-27an kontsultatua).

35 “**hies** iz. Med. Giza Immunoeskasiaren Birusak eraginiko egoera klinikoa. *Hiesak erasanda hil zen, gazterik. Hiesaren birusa.*” (*Euskaltzaindiaren Hiztegia*, 2019-03-27an kontsultatua).

36 “**atso** iz. Emakume zaharra. *Isilaraziko ditut herriko atso zahar guztiak. Hasi da atso zimurra bere hasbeherapenekin. Atsoa kontu hartzen ari da eta auzoan dena zabalduko du. Atso bat hiltzeko ez da gauza: ez du ezertarako balio. Onets nezan gure atsoa, iduri zekidan neskatoa (esr. zah.).* [Oharra: hitz markatua da, gutxiespen balioa du eskuarki, eta ezin erabil daiteke “adineko”-ren sinonimo oso balitz bezala.]” (*Euskaltzaindiaren Hiztegia*, 2019-03-27an kontsultatua)



jaso egin behar dituelako<sup>37</sup>, baina argi adierazita nola erabiltzen den eta, beraz, nola ez den erabili behar. Sexuak, jatorriak edo adinak ez dutelako bereizkeriarik behar ezta hiztegiaren ere.

Hiztegiaren azken eguneratzeak lagunarteko, behe-mailako eta herri-mailako hainbat forma berri ekarri du —eta bidean dira adierazkorrak—, bat edo beste asaldatu dutenak, gainera: *bokata*<sup>38</sup>, esaterako. Bada zerbaiten seinale, maila formalari eutsita ere, bestelako erregistroetan normalizatzen ari baita euskara batua. Bai, batua, erregistro hauetarako ez duela balio dioteneztat, hemen kontrako argudio bat. *Bokata*ren kasuan, euskal forma estandarra eta neutroa *ogitarteko* da ‘Barnean jakiren bat daukan ogia edo ogi zatia’ gisa definitua, baina Hegoaldean eta lagunartean *bokata* ere erabiltzen da, eta ez gutxi, datuek erakusten duten moduan, eta ‘Ogitartekoa’ gisa definitua ageri da. Hori da hiztegiak jaso duena, ez besterik, erabilera markatzen duen neurrian. Hitz formalak, estandarrak bere bidea egin du eta, beraz, gaur lagunartekoak ere sartzen has gaitezke, edozein hizkuntza garatuk

37 Hala dio RAEk *Diccionario de la Lengua Españolaren* (DLE) sarreran:

Del mismo modo que la lengua sirve a muchos propósitos, incluidos algunos encaminados a la descalificación del prójimo o de sus conductas, refleja creencias y percepciones que han estado y en alguna medida siguen estando presentes en la colectividad. Naturalmente, al plasmarlas en un diccionario el lexicógrafo está haciendo un ejercicio de veracidad, está reflejando usos lingüísticos efectivos, pero ni está incitando a nadie a ninguna descalificación ni presta su aquiescencia a las creencias o percepciones correspondientes. Se diría que existe la ingenua pretensión de que el diccionario pueda utilizarse para alterar la realidad. Mas lo cierto es que la realidad cambia o deja de hacerlo en función de sus propios condicionamientos y de su interna dinámica; cuando cambia, se va modificando también, a su propio ritmo, la lengua que es reflejo de ella; y es finalmente el diccionario —en la culminación del proceso, no como su desencadenante— el que en su debido momento ha de reflejar tales cambios. (DLE, Preámbulo 23ª edición, 2014).

38 “*bokata*<sup>2</sup> iz. *Heg. Lgart. Ogitartekoa. Goazen kalera, bokata bat jango dugu!*” (*Euskaltzaindiaren Hiztegia*, 2019-03-27an kontsultatua). Datu bakar bat aipatzearen, *bokata* 159 aldiz ageri da *Lexikoaren Behatokia* corpusean [2019-03-27an begiratua], horietatik 157 agerraldi ‘ogitartekoa’ adierakoak eta bi besterik ez hiztegiak aspaldi jasoa duen ‘lixiba’ adierakoak (“*bokata*<sup>1</sup> 1 iz. *Ipar. eta Naf. Lixiba, lixibatzea. / 2 iz. Ipar. eta Naf. Lixiba* (arropa multzoa). / 3 iz. *Ipar. Nahastea, istilua. Ba omen diva ehun eta zenbait diputatu ere, auzi horietatik eskuak garbi aterako ez direnak; zer bokata!*” (*Euskaltzaindiaren Hiztegia*, 2019-03-27an kontsultatua). Ogitarteko adierakoaren lehen agerraldia XX. mendeko corpusean aurki daiteke, 1992ko testuliburu batean (*Bene-benetan 1*), hain zuzen. Forma estandarra, *ogitarteko*, inongo erabilera-markarik gabea, 635 aldiz ageri da *Lexikoaren Behatokia* corpusean.

eta normalizatuk egin ohi duen bezala. Erdal kutsurik hartuko ez bagenio, lasaiago hiztegitratuko genuke hitza, ezta? Baina horixe da Hegoaldean erabiltzen dena.

Hiztegiak lexiko orokorra du helburu, ez terminologia (zentzu hertsian hartuta). Baina erabilera arruntean hitz teknikoak etengabe erabiltzen ditugu, erabilera arrunteko terminoak diren neurrian, eta horiek ere jaso behar ditu hiztegiak erabilgarri izango bada. Oso espezializatuak direnak terminologoen ardura dira, hor dago UZEIko lankideek hasiera-hasieratik kudeatzen duten *Euskalterm*<sup>39</sup> banku publikoa, baina *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* ere halako asko behar ditu, batzuetan espezializazio-markarekin hiztegitratu behar badira ere<sup>40</sup>. *Tinpano*<sup>41</sup> sarrerak, esaterako, hiru marka desberdin behar ditu, hirurak espezialitatekoak baitira: anomiakoa ('belarri barneko mintza'), arkitekturakoa ('ateburuaren gaineko hiruki formako gunea') eta musikakoa ('danbor mota'). Informazio hori guztia eskaini behar du hiztegiak baliagarri izango bada.

Berandu hartu genuen lexikografia modernoaren trena, baina iritsi ginen, eta ez genuen eserleku txarra hartu, gainera. Baina, hori guztia, aurretik oinarriak ezarri zituztenei zor diegu: treneko errailak prest utzi zituzten eta, baita abiadura handikoa hartzeko ere.

Geure esku dago aurrerantzean egiteko dagoena, eta horiek ez ditut isilean gordetako, lan batzuk hasiak baditugu ere. Badira osatu beharrekoak: azpisarrerak kategoriaz osatzea<sup>42</sup>, edo garai batean "hobe" marka zutenen sailkapen moduko bat egitea, guztiak ez baitziren bigarren mailakoak, euskalkiak ere tartean ziren eta. Adibidez, ez dira maila berean jasotzekoak *dedikazio* eta *domeka* sarrerak: lehenengo erdal forma da, euskal ordain egokia duena (*arduraldi*); bigarrena bizkaierako hitz arrunta da, euskalki-markarekin bada ere, hiztegian normaltasun osoz jasotzekoa<sup>43</sup>. Txikikeriak dira hauek, aurrekoek egindako lanaren aurrean. Hirugarren

39 <https://www.euskadi.eus/euskalterm/>

40 56 jakite-arlo ditu *Euskaltzaindiaren Hiztegiak*, eta 3.623 adieratan ageri da espezialitate-marka, hau da, hiztegi osoaren % 5,7 markatua da, 63.507 adiera dituela kontuan hartuta.

41 "tinpano"

1 iz. Anat. Belarri barneko mintza, belarriko hezurtxoei hots-uhinak igortzen dizkiena. *Eztandak tinpanoa zulatu zion*. 2 iz. Arkit. Ateburuaren gaineko hiruki formako gunea; eliza eta kidekoetan, ateburuaren eta arkibolten arteko gunea. *Katedralaren atariaren gainean tinpano bat dago; bi giza irudi ditu alboan, bata belauniko eta bestea eskuetan kutxa bat duela*. 3 iz. Mus. Danbor mota." (*Euskaltzaindiaren Hiztegia*, 2019-03-27an kontsultatua).

42 Azpisarrerak kategorizatzea oinarritzkoa da, besteak beste, hiztegi-kontsultak kategorien araberrako bilaketan emaitza osoak erakusteko.

43 Hiztegi Batuan "*dedikazio* h. *arduraldi*" eta "*domeka* h. *igande*" gisa jaso zituen Euskaltzain-

itzulia hastean ordura arte arautua zegoena corpusean balidatu genuen moduan, ezarpena abian jarritz<sup>44</sup>, ez litzateke txarra izango orain dugun esku arteko corpus handiaren kontra berriro ere probatzea, ea bide onetik goazen oraindik ere —erabiltzaileen oharrek asko laguntzen badute ere—. Eta, nola ez, hiztegia goitik behera lematizatu eta estekaz josi beharko dugu berandu baino lehen, barruko nabigazioa errazteko. Casaresek hitz bat bilatzeko aurrena hitz hori aurkitu egin behar zela zioen<sup>45</sup>. Bada, lematizazioak bidea arinduko du. Izan ere, Casaresek berak dio “el Diccionario de la Lengua [Española] es la obra más difícil de consultar porque no tiene índice”. 1921ean<sup>46</sup> esandakoak dira hauek, duela ia mende batekoak. Kolokazioei ere berandu gabe heldu beharko diegu, gogoeta bideratua badugu ere, hori baita hizkuntza biziaren beste erakusgarri bat (eta euskarara hurbiltzen direnentzat ezinbesteko izango dena epe oso laburrean).

Honaino iritsita, 46.000 formatik gorako<sup>47</sup> euskal hiztegi arauemailea adieraz eta adibidez hornitua izatea ez da hutsala, horretarako ia ehun urte behar izan baditugu ere, baina honek ez du etenik<sup>48</sup>.

Egia da hiztegiak egiteko modua lexikografia modernoaren sorrerarekin eta, nola ez, corpusekin aldatu zela eta, corpusak gizartearen isla diren neurrian, hiztegiak zuzendu, moldatu eta eguneratzeko modua ere aldatu dutela (Rafel 2011; Béjoint 2000, 2007). Hala dio Institut d’Estudis Catalans-ek *Diccionari de la llengua catalana* naren sarreran:

---

diak. *Euskaltzaindiaren Hiztegi*an “h.” (hobe) guztiak kendu ziren, baina sarrera horiek definitzaile soilarekin utzi ziren, hau da, adibiderik gabe. Gaur hala daude hiztegiak: “**dedikazio** iz. Arduraldia”, eta “**domeka** iz. Bizk. Igandea”. Azken honek adibidea beharko luke “hobe” markaren arrastoa kentzeko.

44 Saio horren emaitza esanguratsuenetakoa da baztertua zegoen *amankomun* hitza onartzea, debekua izanagatik ere, corpusetan etengabe erabiltzen zelako. Izan ere, ‘lanak komunean egin’ modukoek sortzen zuten anbiguotasuna (barre-eragilea, askotan) izan zen arauak arrakastarik ez izatearen arrazoi nagusia, antza.

45 Casares: “Para poder buscar una palabra hay que empezar por haberla encontrado” (Casares, 1921).

46 Julio Casaresek RAEn esandako hitzak dira, bere sarrera-hitzaldikoak.

47 38.878 sarrera eta 7.302 azpisarrera direla kontuan hartuta (2019-01-11ko eguneratzeko datua).

48 Mikel Zalbidek 1991n idatzitakora ez gara oraindik iritsi, baina ez gabilta urruti, eta ortografiakoa gainditu genuen aspaldi. Gogora dezagun Zalbidek esandakoa: “Lehen estimazio baten arabera, 10.000-20.000 hitz inguruko zerrenda izango litzateke hiztegi hori. Bada gorago jo nahi lukeenik ere, 50.000 hitz ingurura iritsiz”. Duela 27 urteko batzordekide baikor hori poztasunera iristear dago, atzerapen txiki batekin bada ere.

En lexicografia, qualsevol que sigui la mena de diccionari que hom faci, és imprescindible fer el seguiment de la utilitat per als destinataris, per tal de copsar-ne les deficiències i de posar-hi remei. La millor prova de la bondat d'un corpus i de la seva presentació i descripció és el grau de satisfacció en aquells qui hi recorren, sabent que mai no s'arriba a l'obra completa, acabada del tot; sempre és possible més exactitud, més eficàcia, en les diverses classes d'informació. (DIEC2, Introducció - Part II)

Horrez gain, hiztegiak erabiltzeko modua teknologia berriei esker aldatu da azken urteotan, eta horrek guztiak eman du aukera bilaketa aurreratuak bideratzeko eta, batez ere, barruko kontrola gure gain hartzeko. Hizkuntzalaritza aplikatua- ren garaian gaude, eta ezin dugu tren hori galdu, honetan ere hizkuntza galduko ez bada, egungo arriskua heriotza digitala baita (Kornai, 2013). Bai, beste tren baten aurrean gaude berriro ere.

Eta, hala ere, hau aski da? Ez, ez niretzat behintzat. Egiteko horiek guztiak bideratu eta erakundearen beste baliabideekin lotu beharko genuke hiztegia bera.

Eta hitzaldi honen azken puntuari helduko diot.

### 3.3. Kofradia



Mendeurrenako “Euskara ehuntzen” leloa ezin egokiago datorkit aipatu nahi dudana azaltzeko, kofradiaren nire ametsa zuekin partekatzeko. *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* gure erakundearen baliabide asko jasotzen eta, batez ere, erabiltzen ditu; hiztegia bestelako lanen erabilera praktikoa ere bada eta, informazio osagarria eta adibideak biltzen dituen neurrian<sup>49</sup> (Casares, 1950).

Beraz, zergatik ez lotu hori guztia teoriarekin, zergatik ez erakutsi, modu gardenean, darabilguna zergatik darabilgun? Guztia sarean ehunduko bagenu, balio erantsia emango genieke Akademiaren lanei, erakusgarriago eta erabilgarriago egi-

---

<sup>49</sup> Casaresek esan zuen: “Es tan íntima y esencial la interdependencia de las múltiples ramas en que hoy se divide la lingüística, que no es posible cultivar una de ellas sin llamar en su ayuda a las restantes” (Casares, 1950 [1992]: 29).

teko. Gardentasunaren garaian, edukiak saretzea/ehuntzea dagokigu.

*Euskaltzaindiaren Hiztegia* aitzindaria da hiztegia osatzeko baliatu dituen oinarriak gardentasunez erakusten. Hor ditugu, hiztegiko sarrera bakoitzaren ondoan, ‘Estekak’ laukian klik eginda, horretarako oinarri izan dituen *Orotariko Euskal Hiztegia*, *XX. mendeko Euskararen Corpusa* eta *Lexikoaren Behatokia*, euskal tradizioa eta egungoa islatzen duten corpusak. Baina ez hori bakarrik: hiztegiko formak erabakitzeko baliatu dituen irizpideak, izandako eztabaidak eta erabakiak ere biltzen ditu *Hiztegi Batu Oinarridunak*. Bada, lexikoaren alorrean oinarri gisa erabili ez diren, baina osagarri izan daitezkeen bestelako baliabideak ere eskaini beharko genituzke aurrekoekin batera, alegia, lexiko berezituaren atalean ditugun *Zientzia eta Teknikaren Hiztegi Batua*<sup>50</sup>, *Oinarrizko Hiztegi Juridiko-Parlamentarioa*<sup>51</sup> eta *Literatura Terminoen Hiztegia*<sup>52</sup>. Lexiko espezializatuak (Oinarrizko Hiztegi Teknikoak —Matematika, Fisika, Kimika eta Astronomia— batetik, eta *Oinarrizko Hiztegi Juridiko-Parlamentarioa* bestetik) *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* irizpideak aplikatuta osatu dira, eta horietako hainbat forma —eta, bereziki, adiera— bilduak ditu hiztegiak, baina ez sistematikoki, helburuak ere desberdinak dira eta. Baina *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* jaso dituenak hiztegi berezituetan eta jakite-arlo zehatzetan ikusi ahal izateak bi aukera eskainiko lizkiguke: bata, bere familian kokatua izatea eta, bestea, erdal ordainak ikusi ahal izatea. *Literatura Terminoen Hiztegiak*, gainera, sarrera bakoitzaren definizioa eta artikulua osoa ikusteko aukera eskainiko digu.

Eta, aurrekoekin batera, *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa* ere hiztegiarekin lotu beharko genuke, prest izango denean, hitzaren ziklo osoa osatzeko. Orain *Orotariko Euskal Hiztegiak* eskaintzen digu formen etimologia kasu batzuetan, hiztegiko sarrerara joanda, baina modu laburtuan eta ez sistematikoan egiten du, ez baita hori OEHren egiteko nagusia.

---

50 <https://www.euskaltzaindia.eus/hizkuntza-baliabideak/hiztegi-digitalizatuak/oinarrizko-lexiko-teknikoak>

51 <https://www.euskaltzaindia.eus/hizkuntza-baliabideak/hiztegi-digitalizatuak/oinarrizko-hiztegi-juridiko-parlamentarioa>

52 [https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com\\_xslt&lang=eu&layout=lth\\_list&search=1&view=frontpage&Itemid=474](https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_xslt&lang=eu&layout=lth_list&search=1&view=frontpage&Itemid=474)

Dialektologiaren esparruan, *Euskararen Herri Hizkeren Atlasak*<sup>53</sup> lexikoari dagozkion 2.163 galderen erantzunetan hiztegian jaso diren forma ugari biltzen ditu, euskalkietako aldaerak bereziki<sup>54</sup>. Eta horiek guztiak mapa batean islatuta ikustea guztiz argigarria da. Egun modu automatikoan egiten da lotura hori, baina kontzeptuen araberako loturak falta dira, eta berandu gabe osatu beharko lirateke. Bi proiektuok, zein bere bidetik osatu badira ere, eta helburuak erabat desberdinak diren arren —semasiologikoa da hiztegia, onomasiologikoa atlasa— ahozkoaren eta idatziaren arteko koherentzia-maila uste baino handiagoa dela erakusten dute, eta elkar aberasteko balia daitezke. Atlasak hiztegian egon daitezkeen hutsuneak edo euskalkietako zehaztasun-mugak salatuko ditu eta, gure irizpideekin talkarik egiten ez duten heinean, osagarri izan daiteke elkarrizketetatik eskuratutako informazioa. Eta alderantziz ere bai: atlaseko forma lematizatu horietako asko sarrera dira hiztegian, eta balio erantsia emango lieke hiztegiaren definizioak eta adibideak bertan bistaratuko balira, forma bakoitzaren osagarri eta erabiltzaileen lagungarri.

Aipatu berri ditudan hauek guztiak bilduta, Euskaltzaindiaren Iker Saileko Hiztegitzinta eta Dialektologia atalak saretuak izango genituzke<sup>55</sup>. Gehienak eskuratu ditugu, sarean kontsultagai, baina hiztegitik abiatuta ikusteko aukerak aberastu egingo luke guztia, eta sendotasuna emango lioke egiten dugunari. Euskalkiak, jakite-arloak, kategoriak, taxonak eta bidalketak osatzen eta fintzen lagunduko lukete hauek guztiek. Eta, diodan bidenabar, kontrako bidea ere aberasgarri izango litzatekeelakoan nago. Horrek eduki guztiak lotzea eskatuko luke. Lana da, baina ez ezinezkoa, eta emaitza oso aberasgarria izango litzateke, koordinazioaren kontrola indartuko lukeena, gainera.

*Euskaltzaindiaren Hiztegiak* gramatikari buruzko informazioa ere eskaintzen du. Ez dira gutxi gramatika-oharrak dituzten formak, eta horietatik arau solteetan ar-

53 [https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com\\_ehha&Itemid=466&lang=eu&layout=sarrera&view=frontpage](https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_ehha&Itemid=466&lang=eu&layout=sarrera&view=frontpage)

54 *Euskaltzaindiaren Hiztegi*ko sarrerren aldaerak *Hiztegi Batu Oinarri*dunean ikus daitezke, corpusean erabili diren neurrian.

55 Bada dialektologiaren esparruan aipatu ez dudana beste lantalde bat: *Euskalkien lantaldea*. Jagon Sailaren barruan dihardu, ez Iker Sailean, eta ez du, oraingoz behintzat, Iker Sailarekin —zehatzago, hiztegiarekin— loturarik, bere egitekoetan “2006. urtetik, euskalkiek euskara batuari egin diezaioketen ekarria aztertzen ari da lantaldea, «Euskalkietatik euskara batura: nola osatu Hiztegi Batua» lan egitasmoarekin” aipatzen badute ere. <https://www.euskaltzaindia.eus/euskaltzaindia/organigrama-osoajagon-saila/325-jagon-lantaldeak/810-euskalkiak>

gitaratuetara edo EGLU<sup>56</sup> liburukietako azalpenetara joateak testuinguru zabala-goan kokatuko luke hiztegi oharra zein azalpena. Are gehiago, oraindik araurik edo proposamenik ez dagoen kasuetan, iaztik eskura dugun *Euskara Batuaren Eskuliburuak*<sup>57</sup> ematen dituen argibide garden bezain praktikoekin lotu beharko litzateke hiztegi oharra.

Adibidetegia zabala da oso, eta hor islatzen dira Euskaltzaindiaren arauak<sup>58</sup>, gomendioak eta irizpideak, zein bere aldetik ditugunak, bide batez esanda. Izen propioz josia dago hiztegia. Onomastika (toponimia eta antroponimia) eta exonomastika inon aplikatzen badira, adibidetegian da. Izen horiek EODArekin<sup>59</sup> eta, nola ez, ECOrekin<sup>60</sup> lotzea zinez aberasgarria litzateke, gure adibidetegiak arau horiek etengabe aplikatzen baititu. Onomastikak hiztegiari herritarren izenak ekarri dizkion moduan, Exonomastikak ere lexiko orokorreko hainbat forma eman dizkio (kanpoko herritarrez gain, hizkuntza- eta etnia-izenak, esaterako). Baina hiztegitik onomastikarako eta exonomastikarako bideak ere lagunduko luke, hiztegian adieraz zein adibidez osatu diren lexiko arrunteko sarrera horiek osorik bistartzeko aukera emanda.

Ahoskera ere aipatuko nuke gustura. Arau orokor bakarra dugu oraingoz, “Euskara Batuaren ahoskera zaindua” (87. araua)<sup>61</sup>, eta egingo du bere bidea. Baina hiztegi sarrerak entzuteko aukera behintzat aztertu beharko genukeelakoan nago.

Bistakoa da, saregilez josia dago Euskaltzaindia: zein bere aldetik bere sarea ehuntzen, hau da, arautzen. Armiarma-sare handi bat osa dezakegu Iker Sailekoen artean. Eta, horrekin batera, ez ditzagun Jagon Saileko lagunak ahaztu, sare-konpontzaileak, sareak oraindik erabat bukatu gabe ditugu eta. Eta ez ditugu makalag geurean: *Jagonet*<sup>62</sup> eta *Euskara Batuaren Eskuliburuak* (EBE). Azken honen

56 *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak*. Liburuki horiek eta gehiago hemen kontsultagai: <https://www.euskaltzaindia.eus/hizkuntza-baliabideak/gramatika/eglu-dokumentuak>

57 [https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com\\_ebe&view=bilaketa&task=sarrera&Itemid=1161](https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_ebe&view=bilaketa&task=sarrera&Itemid=1161)

58 <https://www.euskaltzaindia.eus/hizkuntza-baliabideak/baliabide-orokorrak/arauak>

59 EODA: Euskal Onomastikaren Datutegia. [https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com\\_ecoeoda&task=bilaketaPortada&Itemid=472&lang=eu](https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_ecoeoda&task=bilaketaPortada&Itemid=472&lang=eu)

60 ECO: Euskal Corpus Onomastikoa.

61 [https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com\\_euskaltzaindiarenarauak&view=frontpage&Itemid=424&lang=eu&arauaId=87](https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_euskaltzaindiarenarauak&view=frontpage&Itemid=424&lang=eu&arauaId=87)

62 [https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com\\_jagonet&lang=eu&view=faq&Itemid=423](https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_jagonet&lang=eu&view=faq&Itemid=423)

arrakasta ikusita, agerian geratu da gure sareek oraindik ere zuloak dituztela. EBEn modu argian, didaktikoan jasotzen diren azalpen horiek ere argituko lukete hiztegiaren erakusten duguna, eta erreferentzia bibliografikoek hiztegiari berari sendotasun are handiagoa emango liokete. EBek berak, bere aldetik, egiten ditu hiztegiari bidalketak, gainera. Eta bidean da sare-konpontzaile berria, *Euskara Eskuz Esku* (EEE), begirada Iparraldean ezarria duena.

Azkenik, eta ez garrantzirik ez duelako, *Informazio eta Komunikazioaren Teknologiak* (IKT) egiturazko batzordea oso kontuan izatekoa da, saregileek eta sare-konpontzaileek lanabes egokiak behar dituzte eta. Zerbitzu honek saretu beharko ditu edukiak egungo teknologiak baliatuz, estandarrak bere eginda.

KOFRADIA bat da amesten dudana, saregileak eta sare-konpontzaileak batuko dituen, teknologiak lagunduta betiere. Eta izan, badugu, Euskaltzaindia, baina guztiak modu finean saretzea besterik ez da falta, hau da, koordinatzea. Halako ehuntze-lan batek berez ekarriko luke koordinazioa, eta ezinbesteko kontraesanak saihesteko tresna egokia izango litzateke, gainera. Ez dezagun ahaztu gure Akademiaren helburua zerbitzua eskaintzea dela, baina XXI. mendean gaude, eta berehalako zerbitzua ere beharrezkoa da, benetako beharrei erantzun nahi badiegu behintzat. Sare-konpontzaileek prestatu beharko dute berehalako eta behin-behineko erantzuna, ondoren saregileek behin betiko lana buru dezaten, luzamendutan ibili gabe. Honela, zintzo eta azkar erantzun ahal izango diogu txantxetan esan izan den “Zalantza non, Euskaltzaindia han” horri. Eta hala egin behar du gizartearen parte izaten jarraitu nahi badu. Baditu horretarako baliabideak, badu ezagutza, eta badu itzala euskal gizartearen. Konfiantza horri erantzutea dagokio Akademiari.

### 3.4. Bukatzeko

Garaiak aldatu egin dira. 2016an paperetik sarerako jauzia egin genuen hiztegiaren, eta berehala banakako produktutik sareko lan bateratuagoetara —corpuse-tara eta HBOra garamatzaten esteken bidez—. Baina gehiago egin dezakegula uste dut. Teknologia berriak eskura ditugu, horiek geure zerbitzura daude eta baliatu egin behar ditugu. Hizkuntza-teknologiaren aroan erabat murgildu beharra dauka Akademiak aurrera egingo badu. Webgune berriak aldaketa kualitatiboa ekarri



dio Euskaltzaindiari: erabilerraza da, intuitiboa, landua eta egituratua dago, baina hizkuntza-teknologiei zuku handiegirik atera gabe, oraingoz. Eta dituen baliabide guztiekin, zer ez luke egingo!

Gizartea aldatu egin da, hiztegiak egiteko modua aldatu egin da. Egin dezagun urrats bat aurrera eta presta dezagun egungo eta biharko beharrei erantzungo dien eduki integrala: baliabide teknologiko berrietan oinarritutako edukiak, askotarikoak.

Hiztegi ortografikotik abiatu ginen, adieraz eta adibidez hornitu genuen, XXI. mendera ekarri dugu. Zergatik ez guztia integratu?

Duela gutxi lantaldeko kideok *Orotariko Euskal Hiztegiari* ikasi dioguna ekarriko dut hona bukatzeko, Toribio Etxebarriari hartuta, beretzat –neure antzera, barrualdekoa izanda– ‘kofradia’ hitzak kostaldekoaz beste adiera bat ere badu eta: *Kofradixakua danak, kandelía jasoko dau*.

Eskerrik asko.

## BIBLIOGRAFIA

- Aduriz, J. A., 1994, «Hiztegi batua lantzeko irizpideak: aurkezpen-hitzak», *Euskera*, 39 (3), 1087-1110.
- Ahumada Lara, I., 2016, «Metalexigrafía del español: clasificación orgánica y tipología de los diccionarios en el Diccionario Bibliográfico de la Metalexigrafía del Español (DBME)», *Anuario de Estudios Filológicos*, XXXIX, 5-24.
- Altube, S., 1919-1920, «Erderatiko-itzak, itz-barriak eta aintxiña-itzak / (Garrill. 23ko batzarran Altube yaunak egindako ikerpena)», *Euskera*, 1. urtea(2), 44-54.
- Anglada Arboix, E., 1991, «Lexicografía, metalexigrafía, diccionario, discurso», *Sintagma*, 3, 5-11.
- Atkins, S. & Rundell, M., 2008, *The Oxford Guide to Practical Lexicography*. Oxford University Press.
- Azkarate, M., 1991, «Euskara batuko lexikoaren plangintzaz zenbait gogoeta»,

*Euskera*, 36 (3), 1115-1117.

Azkue, R. M. (1919-1920). «Euskaltzaiñen iker-azterpenak. X. Erderatiko itzak, itz sorberriak eta beinolako itzak (batzar bertan Azkue jaunak egindako ikerpena)», *Euskera*, 1. urtea (2), 54-62.

Béjoint, H., 2000, *Modern Lexicography: An Introduction*. Oxford University Press.

Béjoint, H., 2007, «Informatique et lexicographie de corpus: les nouveaux dictionnaires», *Revue française de linguistique appliquée*, XII(1), 7-23. <https://www.cairn.info/revue-francaise-de-linguistique-appliquee-2007-1-page-7.htm>

Casares, J., 1921, Nuevo concepto del Diccionario de la Lengua. [RAEko sarrera-hitzaldia]. [http://www.rae.es/sites/default/files/Discurso\\_de\\_ingreso\\_Julio\\_Casares.pdf](http://www.rae.es/sites/default/files/Discurso_de_ingreso_Julio_Casares.pdf)

\_\_\_\_\_, 1950, *Introducción a la lexicografía moderna*. Madrid: CSIC. [1992, 3. argitalpena].

Dubois, J. C., 1971, *Introduction à la lexicographie: le dictionnaire*. Paris: Larousse.

Euskaltzaindia, 1919-1920, «Euskaltzaindia'ren Batzorde ta Ardurak» *Euskera*, 1. urtea (1), 18.

\_\_\_\_\_, 1959, «Euskaltzaindiaren agiria euskal itzei buruz», *Euskera*, 4, 214-217.

\_\_\_\_\_, 1968, «Batasunerako Hiztegia», *Euskera*, 13, 251-265.

\_\_\_\_\_, 1975, «Zortzi urte arteko ikastola hiztegia», *Euskera*, 20, 7-153.

\_\_\_\_\_, 1979, «H letraren ortografi arauak», *Euskera*, 24 (2), 659-695.

\_\_\_\_\_, 1991, «Euskaltzaindiaren bigarren agiria euskal hitzei buruz» *Euskera*, 36 (2), 445-447.

\_\_\_\_\_, 2000, «Hiztegi Batua», *Euskera*, 45 (2), 480-757.

\_\_\_\_\_, 2016, *Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak* (2 liburuki). Bilbo: Euskaltzaindia. Kontsultak sareko hiztegi etengabe eguneratua: [https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com\\_hiztegiambilatu&view=frontpage&Itemid=410&lang=eu](https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegiambilatu&view=frontpage&Itemid=410&lang=eu)

- Hiztegi Batuko batzordea, 1994, «Hiztegi batua lantzeko irizpideak», *Euskera*, 39 (3), 1093-1110.
- Institut d'Estudis Catalans. «Introducció», in *Diccionari de la llengua catalana* (DIEC2) (Segona edició). [https://dlc.iec.cat/introduccio2\\_1.html](https://dlc.iec.cat/introduccio2_1.html).
- Kornai, A., 2013, «Digital Language Death», *PLoS ONE*, 8(10), e77056. <https://doi.org/10.1371/journal.pone.0077056>
- Mitxelena, K., 1968, «Ortografia», *Euskera*, 13, 203-219.
- Pruvost, J., 2005, «Quelques concepts lexicographiques opératoires à promouvoir au seuil du XXIème siècle», *ÉLA. Études de linguistique appliquée*, (137), 7-37. <https://www.cairn.info/revue-ela-2005-1-page-7.htm>
- Quemada, B., 1987, «Notes sur lexicographie et dictionnaire», *Cahiers de lexicologie*, (51), 235-245.
- Quemada, B., 1990, «La nouvelle lexicographie», in M. T. Cabré et al. (eds.), *La lingüística aplicada* (55-78). Barcelona: Universitat de Barcelona-Fundació Caixa de Pensions.
- Rafel i Fontanals, J., 2011, «Lexicografía e informática. Aplicación a la lengua catalana», in A. Sagarna, J. Lakarra eta P. Salaberri (arg.), *Pirinioetako hizkuntzak: lehena eta oraina* (Euskaltzaindiaren XVI. Biltzarra, Iruñea 2008). IKER 26 (557-565). Bilbo: Euskaltzaindia.
- Real Academia Española, 2014, «Preámbulo», in *Diccionario de la Lengua Española* (23ª edición). <https://www.rae.es/sites/default/files/Preambulo.pdf>
- Sarasola, I. eta beste, 1991, «Hiztegi batua: lanketa- eta onespren-prozedurak», *Euskera*, 36 (3), 1135-1145.
- Stamper, K., 2018, *Palabra por palabra. La vida secreta de los diccionarios*. [Itzulpena]. Madrid: Capitán Swing.
- Urkia, M., 2007, «XX. mendeko euskararen corpus estatistikotik XXI. mendeko erreferentzia-corpusera», in I. Ugarteburu eta P. Salaburu (arg.), *Espesialitateko Hizkerak eta Terminologia Jardunaldiak (II)*. *Euskara estandarra eta espezialitate-hizkerak*, 35-52. Leioa: UPV/EHU.

\_\_\_\_\_, 2008, «Euskararen erreferentzia-corpusaren beharraz», in J. Gorrotxategi (arg.), *Euskalgintza XXI. mendeari buruz* (Euskaltzaindiaren XV. Biltzarra Azkue eta Urkixoren omenez, Bilbo 2001). IKER 19 (305-310). Bilbo: Euskaltzaindia.

Villasante, L., 1956, «Gure eginbearrak» *Euskera*, (1), 257-274.

Zalbide, M., 1991, «Euskaltzaindia euskal hitz-althorraren berrikuntza-lanean: eginkizuna eta jardupidea», *Euskera*, 36 (3), 1097-1113.

Zgusta, L., 1971, *Manual of Lexicography*. The Hague: Mouton.